



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ EZ BAITA ONARTZEN GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOKO HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN (13. AKTA) 2016KO IRAILAREN 1EKO EBAZPENAREN KONTRA [REDACTED] JAUNAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA, EPEZ KANPO AURKEZTEAGATIK.**

---

**21/2016 espedientea.**

**AURREKARIAK**

**Lehena.-** 2016ko irailaren 12an, [REDACTED] jaunak aurkeztutako errekurtsu bat jaso zuen Herri Administrazio eta Justizia Sailak, «2016ko uztailaren 19an eta 20an Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordeak hartutako erabakien aurka (11. eta 12. aktak)». Errekurtsu haren bidez, erabaki haiek indargabetzeko eskatu zion Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

**Bigarrena.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion Gipuzkoako Atletismo Federazioari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, egokitzat jotzen dituzten froga-eginbideak aurkezteko aukera emanez.

**Hirugarrena.-** 2016ko irailaren 21ean, [REDACTED] jaunak aurretik aipatutako errekurtsoarekin lotutako dokumentu berriak aurkeztu zituen (Postetxean utzi zituen). Aurkeztutako dokumentazio berriaren artean, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 13. akta zegoen, 2016ko irailaren 1ekoa.



**Laugarrena.-** 2016ko irailaren 26an, errekurtsogileak atzera egiteko idazkia aurkeztu zuen, «2016ko irailaren 12an egin zuen errekurtsoko uzi guztiei zegokienez».

**Bosgarrena.-** 2016ko irailaren 29ko Kirol Justiziaren Euskal Batzordeak hartutako Erabakiaren bitartez, uko egintzat jo zen errekurtsogilearen uzia, hark bere borondatez eskatu zuenez.

**Seigarrena.-** 2016ko urriaren 3an, postetxean errekurtsoko berri bat utzi zuen, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2016ko irailaren 1eko Ebazpenaren kontrakoa (13. akta). Ebazpen horren bitartez, gaitzetsi egiten zen 2016ko uztailaren 30ean Hauteskunde Batzordearen aurrean aipatutako hauteskunde-batzorde horren 11. eta 12. akten kontra aurkeztutako errekurtsoa.

**Zazpigarrena.-** 2016ko urriaren 31n, Gipuzkoako Atletismo Federazioak [REDACTED] jaunak aurkeztutako errekurtsoari egindako alegazioak jaso ziren.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsoko hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak 138.b) artikuluan, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, 3.b) artikuluan.

**Bigarrena.-** Errekurtsoarean xedea da Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordeak gaitzestea [REDACTED]



jaunak Hauteskunde Batzordearen 2016ko uztailaren 19ko eta 20ko 11. eta 12. akten kontra aurkeztutako bi errekurtsioak. Hauteskunde Batzordearen gaitzeste-erabaki horiek 13. aktan jasota daude, 2016ko irailaren 1ekoan.

**Hirugarrena.-** Errekurtsogilearen idazkian azaldutako alegazioak eta 21/2016 espedientean jasota dagoen dokumentazioa aztertuta, uste dugu kasu honetan egokia dela errekurtsioa ez onartzea, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduak, euskal kirol federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak eratzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituenak, honako hau xedatzen du 15.5 artikuluan: «*Hauteskunde Batzordeak lehen instantzian hartzen dituen erabakien aurkako errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira Hauteskunde Batzordean bertan, bi egun balioduneko epean. Epe hori jakinarazpenaren biharamunetik kontatuko da, edota argitalpen-egunaren biharamunetik bestela. Errekurtsio horiei buruzko erabakien aurka errekurtsioa jarri ahal izango da Kirol Justiziaren Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean*».

Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2016ko irailaren 1eko 13. aktaren kontrako bigarren errekurtsioan, [REDACTED] jaunak adierazi du 2016ko irailaren 26an Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2016ko irailaren 1eko Ebazpena jakinarazitzat jo zela, Hauteskunde Batzordearen 11. eta 12. akten kontrako bi errekurtsioak atzera egiteari buruzkoa, hain zuzen.

21/2016 espedientea aztertu ondoren, egiazta daiteke 13. akta hori espedientean dagoela, [REDACTED] jaunak 2016ko irailaren 21eko mezu elektronikoen bitartez dokumentazioa eman zuen eta.



Horrenbestez, errekurtsogileak ezagutzen zuen Hauteskunde Batzordearen 2016ko irailaren 1eko bi ebazpenen edukia, atzera egiteko direnena.

Ebazpen horren jakinarazpenari dagokionez (Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 13. akta), adierazi beharra dago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (egun, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.b) artikulua) 59.1 artikuluan honako hau agintzen duela, jakinarazpen administratiboak egiteari dagokionez:

*«Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, betiere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada.*

*Egindako jakinarazpenaren egiaztatzea espedienteari atxikiko zaio».*

Aurreratu dugun moduan, 21/2015 espedienteko dokumentazioaren azterketatik ondoriozta daiteke errekurtsogileak Hauteskunde Batzordearen 2016ko irailaren 1eko ebazpenen edukien berri zuela, behintzat 2016ko irailaren 21etik aurrera. Egun horretan, [REDACTED] jaunak akta horren kopia bat utzi zuen postetxean, 21/2016 espedientean dokumentazio gehigarri gisa aurkezteko.

Horrenbestez, errekurtsoa aurkezteko epea 2016ko irailaren 21aren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurretiko epea duen jakinarazpen horren beste dokumentu frogagarri baten falta dagoenez, Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurtsoa aurkezteko epea (zazpi egun baliodun)



2016ko irailaren 29an amaitu zen. Halaber, [REDACTED] jaunak 2016ko urriaren 3an, garaiz kanpo, aurkeztu zuen aztergai dugun errekurtsua eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 113.1 artikuluan (egun, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 119.1 artikulua) jasotakoa betez, egokia da errekurtsu hori ez onartzea.

Hala, aurretik aipatutako 30/1992 Legeak 47. artikuluan (egun, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 29. artikulua) ezartzen denez:

*«47. artikulua. Epe-mugak eta epeak bete beharra.*

*Gaiak izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako agintariak eta langileak eta gai horietako interesdunek bete egin behar dituzte lege honetan nahiz besteetan ezarritako epe-mugak eta epeak.»*

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

## **EBAZTEN DU**

**Ez onartzea**, epez kanpo aurkezteagatik, [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Atletismo Federazioaren Hauteskunde Batzordearen 2016ko irailaren 1eko (13. akta) Ebazpenaren kontra aurkeztutako errekurtsua. Ebazpen horrek, errekurtsogileak Hauteskunde Batzordearen aurrean 2016ko uztailaren 19ko (11. akta) eta 2016ko uztailaren 20ko (12. akta) erabakien kontra aurkeztutako errekurtsuak gaitzesten ditu.



Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 3a.

**JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea